

MAIPA

Uribeko auzunean, Iturria eritxon baserrian, Kontxe, bere senar Anton eta onen ama —Kontxeren amaizea— zan Pelipa bizi ziran.

Zertan esanik be ez dago Kontxe eta Pelipa —amaizea eta erren askori jazotzen jaken lez—ez zirala ondo konpontzen.

Pelipak, auzoakaz, beti eragoion izketa bardina: «Gure Kontxe izan be alperragoa da! alperragoa! Erosiko prezioan pozik salduko neunke, neuria balitz.»

Kontxek ostera, beste au esaten eban: «Emen munduan iñork eroatekotan kurutzea, neuk daroat! Nire amaizea inpernuko deabrue bera baino be, okerragoa da; nire gizon pepe-loa barriz... aren esanak egin ezinik «eperdie galdu bearrean»!

Bein, itzelezko matrakea egin eta gero, Pelipa solora joan zan eta Kontxe, negar baten, balkoipean goruetan asi zan. Alako baten, Manutxo eskekoa eldu zan. Negar zotinak entzun eta esan eutsan:

—Ene Kontxe! Zer dala ta ainbeste negar? Beintzea il egin jatzue ala?

—Bai zera! ori bakarrik balitz dana... Nire amaizeagaz asarratu egin naz.

—Ez jata txoketan! Zulako neska polita ezkondu be ezan egin bear olako lekura eta... Zein izan da arrazoia ba?

—Ba, betikoa... Alper bat nazela, goruetan be ez dodala egiten eta... errazoi faltarik ez dauka eukin. Badakizu, nik neure gazte aroan ez neban baten be, goruetan egin... «miske» azi nintzan eta... Orain, ezkondu nazenean, nire senarrak nik goruetan egitea gure dau ta... nork esan areri eta bere amari ez daki-dala?

— Ori konpontzeko neu naz neiko.

—Ez da egia izango! Zelan baie? Goruetan ikasteko edade txarra daukat, beti-beti atzamarra odoletan ipinten dot.

— Ez, ez dozu goruetan ikasi bear. Zuk entzun adi-adi eta neuk esandako guztia egin:

Beitu, Gabonak pasatu barri dagoz bai eta karakol-azalak nora bota zenduezan gogoratuko zara ezta?

—Bai, oilategira.

—Beno ba, zoaz bertara eta «almuada-azal» baten sartu egizuz. Gero, almoada azal ori, medi kordel bategaz lepoan lotu egizu; ulertu dozu?

—Bai.

— Ondo dago, orain zure senarrari deitu egiozu, beste guztia neure konture itzi.

Egin eban Kontxe Manutxok esandako guztia.

—Zer bear dok? —esan eutsan Anderrek Manuri—.

—Bear... bear ezer ere ez. Mesede bat eskatu nai deutsut.

—Esan ba —erantzun eutsan Manuk.

— Asun pilo bat artu eta lepoan «plegazinoak» emoiztezak, azur guztiak minduta jaukadazak eta.

— Ori bakarrik badok, laster egingo joat.

Artu ebazan Anderrek, laburre ondoko asuntzetik, esku bete asun, kordel bategaz lotu eta asi zan «plegazinoak» emoten.

Leenengoz ukutu eutsanean, lepoan itzalezko azur-karrazia entzun zan. Bildurtu zan Ander eta eskekoari esan eutsan:

—I, ze garrasi dok ori?

—A, hori? ez adi estutu, ori ez dok ezer. Baina emonago eta gogorrago entzuten ziran azur garrasiak.

—I, nik ezin joat jarraitu; ire azurrak apurtuta jauzak —esan eutsan bildurtuta Manuk—.

—Ez, apurtuta ez —erantzun eutsan eskekoak—. Badakik zergaitik jauzaken olan? Ba... gaztetan gorulari ona nintzoan bai... eta goruetan ekin eta ekin ibiltzen nintzoan eta... beituik orain, zaarzarotan azur guztiak apurtuta.

—Ez dok ori egia izango!! Ori olan bada, gaurtik aurrera, nire emazte politak ez dau geiago gorurik artuko.

«Eta beitu zelan suerteak berez etorri bear dau, eskeko bateri esker Kontxek ez eban geiago gorurik artu.

Irakurlea: Bibiñe Pujana - Andereño (Zeanuri)